




Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

ASTEBURUETAKO AISIALDIA -2005-


AURKIBIDEA

- 1.- SARRERA**
- 2.- HELBURUAK**
- 3.- BAILABIDEAK**
- 4.- GARAPENA**
- 5.- GASTUAK**

- **ERANSKINA: HITZARMENA-2005** (Urdaibai Ruygby Eskola/Gernika-Lumoko Udala).



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

1.- SARRERA

Gaztetxoen aisialdiarekin lotuta dagoen proiektu batetaz ari gara. 1999rarte “Gizarte Etxeko Gaztelekua”-n Kosnoaga Gazte Taldearen bitartez betetzen izan den hutsunea, sasoi horretan hutsune bilakatu zitzaigun berriro Parrokiako arduradunek Gizarte Etxea bota eta eraikuntza berri bat egitea erabaki zutenean. Egoera horri irtenbide bat aurkitu nahian, hara non 2001eko udan “URDAIBAI RUGBY ESKOLA” (URE Elkarte) sortu zen, helburu berbera izanik, hau da, gaztetxoen aisialdirako asteburuetan eskaintza berezia egitea.

Gaztedi Arloko Arduradunak eta Euskara Zerbitzuko Arduradunak URE elkartekoekin zenbait bilkura egin ostean, 2001eko irailetik abendurako tartean ekin zioten, esperientzia benetan baikorra izanik.


Hori horrela, zutabeak ondo finkatuta zeudelakoan, 2002 urterako hitzarmen berezi bat sinatzea adostu zen, asteburuetako aisialdia eta euskararen erabilpena lotuz.

2003/2004 urteetan ere indarrean egon da, bidezko egokipenak eginda. Aurtengorako, 2005erako, Asteburuetako aisialdia deituriko egitasmo honi beste azpiegitasmo bat gehitu diogu: Gaztelekuko Zapatuak egitaraua.

Helburu nagusia, euskararen erabilpena gaztetxoen artean areagotzea da eta, bigarren mailakoa, asteburuetako astialdirako urte osoko egitaraua eta topagunea eratzea.



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

2.- HELBURUAK

Eusko Jaurlaritzak eraturiko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiari jarraiki, aisia dela-eta bertan finkatzen direnak aintzat hartuko dira zehatz-mehatz:

- **Helburu Estrategikoa: 2 - Euskararen erabilera: euskararen aldeko, auzogintza eta zerbitzugintza.**
- **Esparrua: 2.e – Aisia**
- **Neurria: 2.e.01.-** Aisialdian lanean diharduten talde indartsuekin (parrokiak, eskautak eta abar) zein aisialdirako begirale eta zuzendarien prestakuntzan ari diren eskolekin (Hezikide, Edex,...) plangintza zehatza egin, begiraleen hizkuntza-trebakuntza antolatzeko eta aisialdeko ekintzetan euskararen erabilera aregotzeko neurri zehatzak eta egokiak hart ditzaten uneoro.

2.e.01/1

Erabatekoa


Udaleko aisialdi-ekintzak modu koordinatuan garatu

- **Neurria 2.e.03.-** Euskararen aldeko ekintza soilen ordeztuz, inguru hezitzailean eskaini aisialdi zerbitzuak: herria, nortasuna, herri-kidetasuna, kondaira eta hizkuntza elkartuz, alegia.

Dударик gabe, erabilera ekintzak aisialdiarekin ere estuki lotuta dagoz, hiztunei dakiena erabiltzeko aukerak eskeini gura jake-eta eskola-orduetatik kanpo eta, eskola aipatu dogunez, haurrak eta gazteak doguz bereziki gogoan kanpaina hau martxan ipintzean. Udako opor horreetan euren arteko erlazioak lantzeko taldekako jokoak eratuko dira, euskara, (ama-hizkuntza izan ala ez), eskola hizkuntza ez eze, olgetarako eta bizitzarako



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

berbakera be badogula kontura daitezen eta, aldi berean, gurasoak, ikusle, haurren arteko hartu-emon horreek euskeraz burutzen dirala konturatzekoan, eurek be euskaragazko kontzientzia landu dagien.

2.e.03/1 Erabatekoa	Jolasaren ildoko ekintzak euskaraz antolatu
2.e.03/6 Erabatekoa	Udan euskaraz antolatzen diren ekintzak indartu (Udan zer egin kanpaina)
2.e.03/7 Erabatekoa	Udalaren menpeko aisialdi eta kultur gunetako ekintzetan euskarazko saioak bermatu (Gaztelekuko zapatuak)
2.e03/001	Asteburuetako aisialdia deituriko programa (URE hitzarmena: "Asteburutetako aisialdia" eta "Gaztelekuko zapatuak" egitasmoak)

3.- GARAPENA - KRONOGRAMA

Bi atal ditu egitasmo orokor honek:

a).- Asteburuetako aisialdia:


- 8-12 urte bitarteko hurrei zuzendua.
- Zapatu-domeketan.
- Egun erdiko iraupena izango duten jarduerak.
- Urte osoan, abuztua eta iraila kanpo utzita.

b).- "Gaztelekuko zapatuak":

- 13-16 urte bitarteko gaztetxoei zuzendua.
- Zapatuetan (20:00-24:00); lau orduko iraupena.
- Zapatu guztietan (uztaila eta abuztua kanpo utzita).



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

Jarduera orokorrak	Urt	Ots	Mar	Apir	Mai	Ekai	Uzt.	Irail	Urr	Az	Aben
Hitzarmena sinatu											
Kirol jarduerak (hilean 2)											
Kultur jarduerak (hilean behin)											
Balorazio txostenak											
8-12 urte bitartekoentzat											
Jolasak / tailerrak (larunbatero)											
Aste Santuan (4 egun jarraian)											
“Udan zer egin” kanpainarekin koordinatutako jarduerak											
Gabonetan (5 egun jarraian)											
13-16 urte bitartekoentzat											
Gaztelekuko zapatuak (guztietan)											
Jaialdi bereziak (hilean behin)											

4.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

Eragileak:

- Euskara Zerbitzua.
- Gaztedia Saila.
- “Urdaibai Rugby Eskola” aisialdirako elkarteak.

Giza-baliabideak:


- HN Teknikaria 1.
- Gazteen Informatzailea.
- URE Elkarteko koordinatzailea eta zazpi monitore.
- Diruzkoak: Gaztedia Sailarenak (23.100 €).

Azpiegitura:

- Gaztelekua (Kultur Etxea Fundazioa) eta bertako material guztia (fonoteka, bideoteka, argitalpen bereziak, mahaiak eta aulkiak).
- Megafonia (Kultur Etxea Fundazioarena).
- Taulatu txikia (Udalarena).



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

5.- AURREKONTUA

8-12 urte bitartekoentzat

Lokalaren mantenimendua (argia, ura, aseguru, garbiketa)	4.700
Tailerretako materiala, irteerak,...	2.000
Zazpi monitoreren lanengatiko dirulaguntza	5.400

13-16 urte bitartekoentzat

Zapatuetako ekitaldiak (tailerrak, lehiaketak,...) 40x100	4.000
Zapatu berezietako jaialdiak 10x400	4.000
Hiru monitoreren lanengatiko dirulaguntza	3.000
GUZTIRA	23.100

Gernika-Lumon, 2005eko martxoan.


O.I.

Imanol Zubizarreta
Euskera Arloko Zinegotzia

Bittor Zarrabeitia
Euskera Teknikaria



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria


UNESCO Saria
2002 - 2003

ERANSKINA

**URDAIBAI RUGBY ESKOLA ELKARTEAK
ETA GERNIKA-LUMOKO UDALAK “ASTE-
BURUETAKO AISIALDIA” ETA “GAZTE-
LEKUKO ZAPATUAK” EGITASMOEZ
SINATURIKO HITZARMENA (2005).-**



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

Gernika-Lumoko Udaletxean, bi mila eta bosteko-ren-(e)an eta Udal Idazkaria naizen Jon Goikoetxea Etxebarria Jaunaren aurrean.

BILDUTA

Batetik, PATXI XABIER BARTOLOME jauna, adinekoa eta NAN zbk. 18.601.501-K, Urdaibai Rugby Eskola Elkartearen izenean arituz (G-95161980).

Bestetik, MIGUEL ANGEL ARANAZ IBARRA Jauna, adinekoa, Gernika-Lumoko Udaleko udal-batzarburua, 7/1985 Legearen 211.1.B) artikulua ezarritakoaren arabera udalaren izenean jarduten duelarik.


ADIERAZTEN DUTE

I

Gernika-Lumoko Udaleko Euskara Zerbitzuak, Euskararen erabilpenerako Udal Ordenantzan ezarritako xedeak oinarri, euskararen erabilpena normalizatzeko antolatzen dituen kanpainen artean, gaztetxoek astialdirako opor garaian eta zenbait ekintza antolatzen ditu (uztaileko “Udan zer egin” kanpaina, Gabonetako Jolas Parkea, jai ospakizunetako umeen jaialdiak,...). Horrekin lotuta, Kultur Etxearen menpeko Gaztelekua dinamizatu beharra azpimarratu zuen Euskara Zerbitzuak orain dela urte pare bat.



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

II

2001eko maiatzean sortu eta Eusko Jaurlaritzaren erregistroan AS/B/092226/2001 zenbakiarekin inskribatua izan zen Urdaibai Rugby Eskola Elkarteak (aurrerantzean “URE Elkarte”), urtean zehar aisialdirako ekitaldiei lotura bat eman eta gaztetxoei zerbitzu iraunkor bat eskaini asmoz, egitasmo berezi bat eratu zuen asteburu eta oporraldietarako duela hiru urte.

III


Arestikoak kontuan hartuta, URE Elkarteak eta Gernika-Lumoko Udalak 2002-2003 urteetan indarrean egon den hitzarmena sinatu zuten. URE Elkarteak dituen helburuekin bat eta bere jarduera hedatzen joan den neurrian, 2004an “Gaztelekuko zapatuak” egitasmoa jarri zuen martxan 13-16 urte bitarteko gaztetxoentzat Gaztedi Arloko dirulaguntzarekin. Hagatik, komeniko litzateke 2004ko hitzarmena egokitu eta “Asteburuetako aisialdia” deritzan egitasmoari “Gaztelekuko zapatuak” egitasmoa atxikitzea, bakoitza adin tarte berezi baterako eratua dela ahaztu barik.

IV

Beraz, alde batetik, euskararen normalizaziorako gaztetxoen astialdirako ekintzak sendotu eta zerbitzu horri iraunkortasuna eman beharra ikusita eta, bestetik, ekimen pribatu honen bitartez, gaztetxoak gizarteratzeko zerbitzu egokia abian jartzeko aukera egokia dela kontuan hartuz, Gernika-Lumoko Udalak eta URE Elkarteak honako ELKARLANERAKO HITZARMENA sinatzen dute. Horretarako, finkatu egiten dituzte hurrengo



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

KLAUSULAK

Lehena.- URE Elkarteak:

- a) Asteburuetarako eta oporraldietarako 8-12 urte bitarteko gaztetxoan aisialdia dinamizatu eta mantentzeko konpromisoa hartuko du (1. Eranskina).
- b) Lehenengo konpromiso horrekin lotuta, “Gaztelekuko Zapatuak” deituriko egitasmoari ere ekingo diote (2. Eranskina) 13-16 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta.
- c) Bestetik, Kultur Etxearen menpe dagoen Gaztelekua kudeatzeko borondatea azaltzen du (Kultur Etxea Fundazioarekin behar den erara adosturik).

Bigarrena.- Aurreko klausularen a) eta b) ataletan aipatutakoa gauzatzeko, URE Elkarteak irakaskuntza zentruekin zuzenean landuko ditu harremanak, garatuko diren ekintzen berri eskolumeen artean hedatzeko eta inskripzio-fitxa baten bitartez nahi dutenekin zerrenda bat osatzeko, ostean harreman zuzena eskutitz personalez izan dadin, horixe baita lokarririk sendoena eta inplikazioa lortzeko erarik egokiena.


Hirugarrena.- URE Elkarteak, lehenengo klausulan aipatutako atalak hurrengo era honetara gauzatzeko ditu:

a) Atalari dagokionean:

- Eskola garaian (irailtik ekainerakoa), hilabeteko zikloetan antolaturik: kirolezko bi jarduera (rugbyarekin lotuta), kulturazko bat eta aisialdiko beste bat. Larubatetan zein igandeetan, edo bietan, eta, ekitaldiaren arabera, iraupena egun erdikoa edo egun osokoa izango da.
- Oporraldietan:
 - Gabonak.- Gabonetako kanpaina bost egunekoa izango da, tarte horretan ekintza desberdinak burutuz, hala nola, irteerak,



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

eskulan tailerrak, zinemara irtenaldia, rugby jarduera, PIN-erako bidaia. Beti ere, Udalak antolatutakoarekin koordinatuko da guztia.

- Aste Santua.- Sasoi honetan lau eguneko kanpaina egingo da, eskema berdina izanik.
- Udaroa.- Asteburuetan ahalegin berezia eginda ere, Gaztedi Arlotik eta Kirol Erakundetik urtero bideratzen den “Udan zer egin” kanpaina dela-eta, koordinazio berezia izango da honako hitzarmena sinatzen duten alderdi bien artean.


- b) Ataleko “Gaztelekuko zapatuak” deituriko egitasmoa dela-eta, urte osoko 36 jaialdi (34 ekintza egun eta hasiera eta bukaerako 2 jaialdi berezi) antolatuko dituzte zapatuetan, ordutegia 8:00etatik 12:00etara arte izanik.
- c) Atalari dagokionean, hau da, Gaztelekua kudeatzea dela-eta, URE Elkarteak eta Kultur Etxea Fundazioaren artean adostu beharreko akordioaren arabera.

Laugarrena.- Gernika-Lumoko Udaleko Euskara Zerbitzuarekin, Gaztedirako Ordezkaritzarekin eta Kultur Etxea Fundazioarekin bat jokatu du URE Elkarteak, astialdia eta euskararen normalizazioaren bidean helburu mailakatuak gauzatzearren eta ekintza zehatzekin koordinazioa lortzeko.

Bosgarrena.- URE Elkarteak, eskeiniko dituen zerbitzu guztiekiko txosten bat aurkeztuko dio Udaleko Euskara Zerbitzuari eta Gaztedirako Ordezkaritzari hiruhilabeterik behin, urte bukaerarako azken txostena eta egindako gastuen zuriak egin behar izanik.



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

Seigarrena.- Gernika-Lumoko Udalak, “Asteburuetako aisialdia” eta “Gaztelekuko zapatuak” egitasmoezko eskainiko duen aholkularitza eta bere zerbitzu-baliabideen laguntza orokorretik aparte, konpromiso zehatza hartuko du hitzarmen honen helburuak betetzeko 2005eko aurrekontuan 23.100 euroko dirulaguntza aurrikusteko, jarraian aipatzen diren diru-partidetan banatuta:

I.- Asteburuetako aisialdiari dagokionean:	
a) Lokalen matenimendua (argia, ura, , aseguru, garbiketa-lanak).....	4.700 €
b) Ekintzak burutzeko materialerako diru-partida (tailerrak, irteerak).....	2.000 €
c) Zazpi monitoreren lanengatikoko dirulaguntza.....	5.400 €
II.- “Gaztelekuko zapatuak” egitasmoari dagokionean:	
a).- 34 ekintza egun x 300 €	10.200 €
b).- Hasiera eta bukaerako jaialdiak 2 x 400 €.....	800 €


Zazpigarrena.- Diru-partida horiek honako era honetara ordainduko zaizkio URE Alkarteari:

- Dirulaguntza orokorraren %50a, 11.550 euro, Gernika-Lumoko Udalak hitzarmena ontzat ematen duen unean.
- 2005eko uztailean gainerako %50a, beste 11.550 euro.

Zortzigarrena.- Elkarlanerako Hitzarmen hau sinatu eta indarrean izango da urte beteko epean eta, behin igaro ezker, sinatzaile biek adostuko dute akordioa luzatu ala egoera berriari egokitu beharra.



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

Eta adostasunaren seinale, honako agiria sinatu dute ekitaldiko partaide guztiek, idazburuan aipatutako leku eta datan.

ALKATEA,

Miguel Angel Aranaz Ibarra

GAZTEDIRAKO
ORDEZKARITZA-BURUA

Iñaki Iglesias Aransolo

URE ELKARTEA,,

Patxi Xabier Bartolome

IDAZKARIA,

Jon Goikoetxea Etxebarria